



**eaj
pnv**



BERDINTASUNA EKINEZ EGINA IGUALDAD EN CONSTRUCCIÓN

MARTXOAK 8, EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA
8 DE MARZO, DÍA INTERNACIONAL DE LAS MUJERES

EAJ-PNV-REN ADIERAZPENA MARTXOAREN 8AN, EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNEAN

Nazio Batuen Erakundeak 1975 urtean erabaki zuen martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Eguna izango zela. Egun honen aurrean, EAJ-PNVk aitortzen eta aldarrikatzen du emakume eta gizonen arteko berdintasuna, giza eskubidea izateaz gain, beharrezko eta oinarritzko faktore ere badela Euskadin giza garapenerako eta garapen sozial eta ekonomikorako.

XXI. mendeko bigarren hamarkada nahiko aurreratuta dagoela, generoen arteko desberdintasuna euskal emakume eta gizonen aurrean aurkezten zaigu giza eskubideenganako errespetu osoa eragozten duen eta gure gizartean desoreka sozial eta ekonomikoak betikitzen dituen oztopo gisa.

Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legea, Eusko Legebiltzarrak 2005ean Ibarretxe Lehendakariaren Gobernuaren bultzadarekin onartua, zedari esanguratsua izan zen emakume eta gizonen artean benetako berdintasuna lortzeko bide luzean. Lege horri esker erdietsi diren lorpenak erronka eta pizgarri dira, aldi berean, guk guztiok azken helmugara iristeko falta dugun bide zati luzea egin dezagun. Azken helmuga hori da berdintasun eraginkorra, erreala eta normalizatua.

Oso zaila da berdintasunean aurrera egitea. Urratsik txikiak ere norbanakoen eta taldearen ahalegin erraldoia eskatzen du. Gainera, edozein aurrera pausu atzera pausu bihur daiteke beharrezko urrats horiek egunero, ordu oro, une oro eman ezik. Gelditzeak suposatzen du berdintasuna mehatxatzen duen inertiaren mende geratzea. Inertzia honek berdintasuna mehatxatzen du eta oso indartsua da gure gizartean.



**eaj
pnv**



BERDINTASUNA EKINEZ EGINA IGUALDAD EN CONSTRUCCIÓN

MARTXOAK 8, EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA
8 DE MARZO, DÍA INTERNACIONAL DE LAS MUJERES

Hori dela eta, EAJ-PNVko emakume eta gizonok premiazko eta beharrezko jotzen dugu balore aldaketa sustatzea, berdintasuna lortzeko behar den gizarte eraldaketa ahalbidetuko duena. Balore aldaketa hori sustatzea lan konplexua da, baina erabakimen osoz ekiteko prest gaude, pertsonen pentsamoldean eta gizarteko orden sinbolikoan eraginez. Lan konplexua bada ere, ezinbesteko dugu lan hori ekitea gure jarreretan aldaketak eta eraldaketak eragiteko eta, azken finean, berdintasuna bultzatzeko.

Balore aldaketa honek berarekin dakar emakumeak norbanako eta talde gisa eta gizarte mailan ahalduntzea, bere autoestimua eta autonomia garatzearen bidez, bere bizi baldintzak hobetuaz eta bere parte hartze sozio-politikoaren areagotuaz.

Denon lana da, emakumeena eta gizonena.

Hori dela eta, 2016ko martxoaren 8 honetan, Emakumeen Nazioarteko Egunean, berdintasunak gizarte gisa aurrera egiten, pertsonen autonomia hobetzen eta berdintasuneko eta errespetuzko harremanak sustatzen laguntzen duelakoan, eta berdintasun alorrean hartu dugun konpromisoarekin bat eginik, EAJ-PNVk hitzematen du:

- Emakume eta gizonen arteko berdintasunerako urrats sendoak ematen jarraituko duela, norabide honetan aurrera egiten lagunduko digun balore aldaketa sustatuaz.
- Aldaketa eragingo duela politikagintzan nagusitzen den ereduaren gizonen botere eta lidergoan oinarrituta egon ez dadin.
- Emakumeen kontrako indarkeria, genero desberdintasunaren adierazpenik bortitzena, salatuko duela.



**eaj
pnv**



BERDINTASUNA EKINEZ EGINA IGUALDAD EN CONSTRUCCIÓN

MARTXOAK 8, EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA
8 DE MARZO, DÍA INTERNACIONAL DE LAS MUJERES

- EAJ-PNVren baitan emakumeen esparrua eratuko duela, zeinetan emakumeek egitura, ohitura eta tresneria ezberdinak planteatu, eztabaidatu eta ezarriko dituzten, Alderdi barruan berdintasuna bultzatzeko eta sustatzeko, emakume eta gizonek partekatuko dituzten ekimenen bidez.